



ALKIZAKO UDALA

UDALBATZARRAK 2024ko APIRILAREN 16AN EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA

2024ko apirilaren 16an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Unai Sorarrain Urruzola Urruzola
Nagore Arizeta Garmendia
Jose M^a Aranzabe
Ana Agesta Echecolonea

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Guillermo Otegi Zubillaga eta Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

1.-L.Z. andreari Alkizako Erretore etxeko behe solairuko etxebizitza alokairuan emateko erabakiaren onspena.

.../...

LEHEN PUNTUA

L.Z. ANDREARI ALKIZAKO ERRETORE ETXEKO BEHE SOLAIRUKO ETXEBIZITZA ALOKAIKUAN EMATEKO ERABAKIAREN ONESPENA.

Ikusirik Ukraniar gerratea hasi zenetik L.Z. andrea eta bere alaba, Alkizako Don Juanena etxean dagoen gela batean bizi direla.

Ikusita, aipaturiko gelan ezin dutela gehiago jarraitu, ez dituelako bizikidetasun baldintzak betetzen.



ALKIZAKO UDALA

Ikusita, Alkizako udalak, Alkiza plaza 3an, Erretoretzeko behe solairuan etxebizitza bat duela hutsik, L.Z. andreari eskaini diona alokairu moduan.

Ikusita L.Z. andreak, Alkizako udalak eskainitako etxebizitza eginiko eskaintza onartu egiten duela.

Ikusita, Alkizako udalaren eta L.Z. andrearen arteko Alkiza plaza 3an, Erretoretzeko behe solairuan etxebizitza alokairuan esleitzeko kontratuaren zirriborroa prestatuta dagoela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Alkiza plaza 3an, hau da, Erretoretzeko beheko solairuan udal etxebizitza L.Z. andreari, alokairuan esleitzea, hilean 350.-euro ordaindu beharko dituelarik.

BIGARRENGOA.- Alkiza plaza 3ko, Erretoretzeko beheko solairuan dagoen udal etxebizitza L.Z. andreari, alokairuan esleitzea, bere iraupena 1 urtetakoa izango delarik.

HIRUGARRENA: Alkiza plaza 3ko, Erretoretzeko beheko solairuan dagoen udal etxebizitzaren alokatzeko kontratua bere osotasunean onestea.

LAUGARRENA.- L.Z. andreari jakinarazi, Udalak prestatutako kontratua sinatu beharko duela. Udalaren izenean, Alkateak sinatzeko baimena ematen delarik.

BOSTGARRENA- Akordio hauen berri interesdunari ematea.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19.15 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

